

## **AZTERKETA: LAN-BAIMEN ARLOKO ARDURADUNA. 2019.**

50 galdera, eta beste 5, ordezekoak.

ZUZENA: PUNTU 1.  
OKERRA: -1/3 PUNTU  
DENBORA: ordu bat eta laurden

---

### **1. Hauetako zein sartzen dira Jabari Publiko Hidraulikoaren definizioan?**

- a) Ur kontinentalak, azalekoak nahiz lurpeko berriztagarriak, berritzeko denbora edozein dela ere.
- b) Ibilgu naturalak, iraunkorrak edo aldizkakoak.
- c) Akuiferoak, baliabide hidraulikoen xedatze- edo afekzio-egintzen ondorioetarako.
- d) Aurreko guztiak sartzen dira Jabari Publiko Hidraulikoaren definizioan.

### **2. Ibilguen ertzek (jabari publiko hidraulikoa) zortasuna dute beren luzera osoan. Zenbatekoa da zortasun horren zabalera?**

- a) 5 metrokoa.
- b) 6 metrokoa.
- c) 3 metrokoa.
- d) Ertzek ez dute zortasunik beren luzera osoan.

### **3. Arroak kudeatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoa honela banatzen da:**

- a) Kantauriko Demarkazio Hidrografikoa, Ebroko Demarkazio Hidrografikoa eta EAeko barneko arroak.
- b) Ebroko Demarkazio Hidrografikoa eta Kantauri Ekialdeko eta Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoak.
- c) Ebroko Demarkazio Hidrografikoa eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa.
- d) Kantauri Mendebaldeko eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoak.

**4. Jabari publiko hidraulikoko ondasunen erabilera-kanonari buruzko baieztapen hauetatik, zein EZ da zuzena?**

- a) Kanona arroko organismoaren alde sortzen da.
- b) Kanona jabari publiko hidraulikoa babesteko eta hobetzeko izango da.
- c) Jabari publiko hidraulikoa okupatzen bada, tasa ordainketa bakarrean aplikatuko da.
- d) Jabari publiko hidraulikoa okupatzen bada, zerga-oinarria okupatutako lursailaren balioaren araberakoa izango da.

**5. Babes-zortasunaren eremuaren helburua da:**

- a) Ibai-ekosistema eta jabari publiko hidraulikoa babestea.
- b) Pasabide publikoa oinezkoentzat eta zaintza-, kontserbazio- eta salbamendu-zerbitzuen lanetarako, salbu eta arroko organismoak ingurumeneko edo segurtasuneko arrazoiengatik mugatzea komeni dela irizten dionean.
- c) Ontziak lehorreratzea eta atrakatzea, noizean behin, eta hala behar izanez gero.
- d) Adierazitako kasu guztiak ditu helburu.

**6. Ibilguen ertzetan ((jabari publiko hidraulikoa), polizia-eremu bat izango da, bertako lurzoruaren erabilera eta egiten diren jarduerak mugatzeko. Zenbateko zabalera izango du eremu horrek?**

- a) 5 metrokoa.
- b) 10 metrokoa.
- c) 100 metrokoa.
- d) 200 metrokoa.

**7. Kasu hauetako zein EZ da Lehentasunezko Fluxu Eremu bat?**

- a) 2 metroko sakonera duen eremu bat, 100 urteko errepikatze-denborako uraldietarako.
- b) Segundoko 1,5 metroko abiadura duen eremu bat, 100 urteko errepikatze-denborako uraldietarako.
- c) 2,5 metroko sakonera duen eremu bat, 500 urteko errepikatze-denborako uraldietarako.
- d) Sakonera eta abiaduraren biderkadura  $0'8 \text{ m}^2/\text{s}$ -koa duen eremu bat.

**8. Uholde-arriskugunetzat jotzen da...**

- a) 100 urteko errepikatze-denborako uraldien eraginpean dagoen eremua.
- b) 10 urteko errepikatze-denborako uraldien eraginpean dagoen eremua.
- c) 500 urteko errepikatze-denborako uraldien eraginpean dagoen eremua.
- d) Lehentasunezko fluxu-eremuren eraginpean dagoen eremua.

**9. Uholde-arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzko 2007/60/EE Zuzentaraua Estatuko legeriara eraman da xedapen honen bidez:**

- a) Uholde-arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzko 903/2010 Errege Dekretuaren bidez.
- b) Uholde-arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzko 3/2011 Lege Dekretuaren bidez.
- c) Uholde-arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzko 6/2010 Legearen bidez.
- d) Uholde-arriskuaren aurretiazko ebaluazioari buruzko 13/2012 Legearen bidez.

**10. Nori dagokio jabari publiko hidraulikoko ibilguak neurtzea eta mugatzea?**

- a) Estatuaren Administrazio Orokorrari.
- b) Toki Administrazioari.
- c) Administrazio autonomikoari.
- d) Alboko lurren titularrari.

**11. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren (JPHE) arabera, administrazio-emakida eta -baimenetan ezarritako baldintzak ez betetzea, baldin eta horien errebokatzea edo iraungitzea deklaratzeko badakar,...**

- a) Arau-hauste arina da.
- b) Arau-hauste ez hain astuna da.
- c) Arau-hauste astuna da.
- d) Arau-hauste oso astuna da.

**12. JPHEaren arabera, zenbateko isunak ezarriko dira arau-hauste astunak zehatzeko?**

- a) Gehienez, 10.000,00 eurokoak.
- b) 10.000,01 eurotik 50.000,00 eurora artekoak.
- c) 50.000,01 eurotik 500.000,00 eurora artekoak.
- d) 500.000,01 eurotik 1.000.000,00 eurora artekoak.

**13. Administrazioak esku hartzeko araubideari dagokionez, zer eskatzen da belaontzi batek urtegi batean nabigatu ahal izateko?**

- a) Motorrik gabeko nabigazioa librea da urtegietan.
- b) Erantzukizunpeko adierazpen bat behar da.
- c) Emakida bat behar da, ontzi bakoitzerako.
- d) Baimen bat behar da, urtegi bakoitzerako.

**14. Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoko ondasunak...**

- a) Besterenezinak dira.
- b) Preskribaezinak eta enbargaezinak dira.
- c) Enbargaezinak dira.
- d) Besterenezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak dira.

**15. Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoko bide-zortasuna, oro har, honako eremu honi dagokio:**

- a) 20 metro, jabari publiko hidraulikoaren mugatzetik neurtuta.
- b) 5 metro, jabari publiko hidraulikoaren mugatzetik neurtuta.
- c) 6 metro, itsasertzaren barruko mugatik neurtuta.
- d) 6 metro, jabari publiko hidraulikoaren mugatzetik neurtuta.

**16. Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa okupatzea:**

- a) Posible da, baldin eta dagokion baimena izapidetu bada.
- b) Ez da inolaz ere posible.
- c) Beren izaeratik beste kokapenik izan ezin duten jarduera edo instalazioetarako bakarrik baimendu ahal izango da.
- d) Kirol- eta arrantza-jardueretarako bakarrik baimendu ahal izango da.

**17. Nork du itsaso eta lehorren arteko jabari publikoan okupazio-emakidak emateko eskumena?**

- a) Estatuaren Administrazio Orokorrak.
- b) Lursailak kokatuta dauden Udalak.
- c) Atxikipenaren titularra den autonomia-erkidegoak.
- d) Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legeak ez du baimentzen emakidak ematea atxikitako itsaso eta lehorren arteko jabari publikoan.

**18. Euskal Autonomia Erkidegoan, nork du itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuan baimenak emateko eskumena?**

- a) Estatuaren Administrazio Orokorrak.
- b) Toki Administrazioak.
- c) Administrazio autonomikoak.
- d) Konfederazio hidrografikoak.

**19. Kostaldeei buruzko Estatuko legeriaren arabera, jarduketa hauetatik zein agindu dakioke udal bati?**

- a) Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunak mugatzea.
- b) Hondartzetan ezar daitezkeen sasoiko zerbitzuak ustiatzea, zuzeneko nahiz zeharkako kudeaketaren bidez.
- c) Neurketak egin eta edukierak zehaztea, itsasoaren inguruko azterketa hidraulikoak egitea eta itsasoko klimaren inguruko informazioa ematea, bere hondartzei dagokienez.
- d) Itsasertza babesteari buruzko txostenak egitea, lurralde-antolamenduko edo urbanizazioko plan eta arauetan.

**20. Uraren Euskal Agentziari honako funtzio hauek dagozkio, besteak beste:**

- a) Obra-baimenak izapidetzea EAEko barneko arroen jabari publiko hidraulikoaren polizia-eremuan, eta, uholde-arriskua izanez gero, polizia-eremutik kanpo.
- b) Obra-baimenak izapidetzea barneko arroen jabari publiko hidraulikoaren polizia-eremuan, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuan eta, kudeaketa-gomendioaren bidez, EAEko erkidego arteko arroen jabari publiko hidraulikoko polizia-eremuan.
- c) Obra-baimenak izapidetzea barneko arroen jabari publiko hidraulikoaren polizia-eremuan, eta, kudeaketa-gomendioaren bidez, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuan.
- d) Obra-baimenak izapidetzea barneko arroen jabari publiko hidraulikoaren polizia-eremuan, eta ur-aprobetxamenduen emakidak egitea EAEko lurralde osoan.

**21. Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren 1/2006 Legearen arabera, Uraren Euskal Agentziak...**

- a) Hertsapen-isunak jar ditzake bere ebazpenak betearazteko, ez-betetze bat gertatuz gero.
- b) Zehapen-espedienteak ireki ditzake, baina ezingo du jarri hertsapen-isunik.
- c) Hertsapen-isunak jar ditzake, baldin eta arau-haustea astuna izan bada.
- d) Hertsapen-isunak jar ditzake, baldin eta arau-haustea oso astuna izan bada.

**22. Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren 1/2006 Legearen arabera, Uraren Euskal Agentziak hirigintza-plangintzako dokumentu hauei buruzko txostena egin behar du:**

- a) Plan partzialak.
- b) Plan bereziak.
- c) Aurreko biak, eta, baita ere, plan orokorrak eta arau subsidiarioak.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.

**23. Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren 1/2006 Legearen arabera, \_\_\_\_\_ izango da Uraren Euskal Agentziak hirigintza-plangintzako dokumentuei –hasierako onarpenera eman ondoren– egiten dien txostena.**

- a) Loteslea.
- b) Ez-loteslea.
- c) Nahitaezkoa eta ez-loteslea.
- d) Ez-nahitaezkoa.

**24. Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren 1/2006 Legearen arabera, zein epetan jakinarazi behar da Uraren Euskal Agentziak hirigintza-plangintzako dokumentuei –hasierako onarpenera eman ondoren– egiten dien txostena?**

- a) Hilabeteko epean, eta kontrako txostentzat joko da, ematen ez bada.
- b) 2 hilabeteko epean, eta kontrako txostentzat joko da, ematen ez bada.
- c) 2 hilabeteko epean, eta aldeko txostentzat joko da, ematen ez bada.
- d) Hilabeteko epean, eta aldeko txostentzat joko da, ematen ez bada.

**25. Zer jasoko da, besteak beste, Uraren Euskal Agentziak hirigintza-plangintzari egindako txostenetan?**

- a) Eskara berriei erantzuteko baliabideak izateari buruzko baldintzak.
- b) Sortuko diren hondakin-urak behar bezala tratatzeko soluzioei buruzko baldintzak.
- c) Aurreko biak.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.

**26. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoak...**

- a) Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoei bakarrik eragiten die.
- b) Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoei eragiten die
- c) Gipuzkoako lurralde historikoari bakarrik eragiten dio.
- d) Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoei eragiten die, itsasertzeko zerrenda alde batera utzita.

**27. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, lehentasunezko fluxu-eremuan baimendu al daiteke eraikinak egitea?**

- a) Ez, inoiz ere ez.
- b) Bai, baldin eta lurzorua urbanizagarri gisa sailkatuta badago (2013tik), hiri-bilbean sartuta badago, eta zenbait baldintza betetzen badira.
- c) Bai, baldin eta lurzorua lurzoru urbanizatuaren oinarritzko egoeran badago (2013tik), hiri-bilbean txertatuta badago, eta zenbait baldintza betetzen badira.
- d) Bai, betiere, udalak aldeko txostena eman badu.

**28. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, bizitegi-erabilerak kokatu behar dira...**

- a) 500 urteko errepikatze-denborako uholde-kotaren gainetik.
- b) 100 urteko errepikatze-denborako uholde-kotaren gainetik.
- c) 100 urteko errepikatze-denborako uholde-kotaren gainetik, eta, hala badagokio, estankotasun-neurriak sartu behar dira.
- d) Kasu bakoitzean ezartzen den uholde-kotaren gainetik.

**29. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, ikastetxe bat eraikitzeko baimena eman daiteke honako kasu honetan:**

- a) 100 urteko errepikatze-denborako uholde-kotatik kanpo kokatzen bada, lurzoru urbanizagarrian (2013tik).
- b) 100 urteko errepikatze-denborako uholde-kotatik kanpo kokatzen bada, lurzoru urbanizatuaren oinarritzko egoeran dagoen lurzorian (2013tik).
- c) Lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo kokatzen bada eta udal-plangintzan onartuta badago.
- d) Uholde-arriskugunetik kanpo kokatzen bada.

**30. Zein da, oro har, administrazio eskuduna, jarduketa bat baimentzeko eta mugatzeko, 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskugune batean, jabari publiko hidraulikotik 110 metrora?**

- a) Estatuaren Administrazio Orokorra.
- b) Toki Administrazioa.
- c) Uraren Euskal Agentzia, barneko arroetan, eta konfederazio hidrografikoak, erkidego arteko arroetan.
- d) Uraren Euskal Agentzia.

**31. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, hirigunean zubi berri bat eraikitzeke, oro har beharrezkoa da, gutxienez...**

- a) Libre uztea lehentasunezko fluxu-eremua.
- b) Libre uztea hustutze biziko bidea.
- c) Libre uztea 100 urteko errepikatzeko-denborako uraldiari dagokion zabalera.
- d) Libre uztea 500 urteko errepikatzeko-denborako uraldiari dagokion zabalera.

**32. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, hirigunean zubi berri bat eraikitzeke, oro har beharrezkoa da...**

- a) Ur-mailatik taularen beheko alderainoko babes, ahal dela, metro batekoa edo handiagoa izatea 500 urteko errepikatzeko-denborako uraldirako, edo, hustubide ahalmenari dagokionez gunerik okerreanean, babes hori zubiaren zabalaren % 2,5koa izatea, gutxienez.
- b) Ur-mailatik taularen beheko alderainoko babes, ahal dela, metro batekoa edo handiagoa izatea 100 urteko errepikatzeko-denborako uraldirako, edo, hustubide ahalmenari dagokionez gunerik okerreanean, babes hori zubiaren zabalaren % 2,5koa izatea, gutxienez.
- c) Ur-mailatik taularen beheko alderainoko babes metro batekoa edo handiagoa izatea 500 urteko errepikatzeko-denborako uraldirako.
- d) Ur-mailatik taularen beheko alderainoko babes, 100 urteko errepikatzeko-denborako uraldirako, hustubide ahalmenari dagokionez gunerik okerreanean, zubiaren zabalaren % 2,5koa izatea.

**33. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, zer bermatu beharko da zubi bat ordezte eskatzen duten hobekuntza hidraulikoko jarduketetan, inguruko urbanizazio-baldintzen ondorioz ezinezkoa bada babesei buruz aipatu diren baldintzak betetzea?**

- a) Ez dela sortzen 10 zentimetro baino gehiagoko goratzea, 100 urteko errepikatzeko-denborako uraldirako.
- b) Ez dela sortzen 10 zentimetro baino gehiagoko goratzea, 500 urteko errepikatzeko-denborako uraldirako.
- c) Jarduketa horiek dagoen uholde-arriskua nabarmen murrizten dutela.
- d) Taularen beheko aldea 500 urteko errepikatzeko-denborako kotaren gainetik gelditzen dela.

**34. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, oro har, ez da baimenduko \_\_\_\_tik gorako arro drainatzailea duten ibai-tarteetan estaldurarik egitea.**

- a) 1 km<sup>2</sup>.
- b) 5 km<sup>2</sup>.
- c) 0,5 km<sup>2</sup>.
- d) 10 km<sup>2</sup>.



**35. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, oro har, debekatuta dago \_\_\_\_\_tik gorako arro isurlea duten ibilguen trazadura aldatzea.**

- a) 1 km<sup>2</sup>
- b) 5 km<sup>2</sup>
- c) 0,5 km<sup>2</sup>
- d) 10 km<sup>2</sup>

**36. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, babes-eremuak, azaleko ur-harguneen kasuan, isurtze-arroaren gaineko erradio finkoko arku baten azalera izango du, oro har. Zenbatekoa izango da erradioa?**

- a) 100 m-koa, 15.000 biztanletik gora zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako ur-harguneetan.
- b) 500 m-koa, 15.000 biztanletik gora zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako ur-harguneetan.
- c) 200 m-koa, 15.000 biztanletik gora zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako ur-harguneetan.
- d) 50 m-koa, 15.000 biztanletik gora zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako ur-harguneetan.

**37. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, zerk baldintzatzen du hezeguneei edo horien babes-eremuei eragin diezaieketen emakidak edo baimenak ematea?**

- a) Egindako azterlan geologikoak.
- b) Lehentasunezko Fluxu Eremuaren azterlanak.
- c) Ingurumenean izan dezakeen eraginaren azterketaren emaitzak.
- d) Ekarpene-arroaren kalkuluak.

**38. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, jabari publikoan eta haren polizia-eremuan, kontserbazio-jarduketa txiki hauek egin daitezke baldintza jakin batzuetan, erantzukizunpeko adierazpena egin ondoren:**

- a) Linea elektrikoen azpiko landaredia garbitzea.
- b) Makaldiak landatzea edo moztea.
- c) Ur-emaria neurtzeko sekzioen mantentze-lanak egitea.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.

**39. Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, jabari publikoan eta haren polizia-eremuan, kontserbazio-jarduketa txiki hauetatik zein egin daiteke baldintza jakin batzuetan, erantzukizunpeko adierazpena egin ondoren?**

- a) Linea elektrikoaren azpiko landaredia garbitzea.
- b) Sare ofizialeko ur-emia neurtzeko estazioetako sekzioen mantentze-lanak.
- c) Aurreko biak.
- d) Aurrekoetatik bat ere ez.

**40. Deklaratutako jarduketak gauzatu baino zenbat egun lehenago aurkeztu behar da, gutxienez, erantzukizunpeko adierazpena?**

- a) Hilabete.
- b) 10 egun.
- c) 7 egun.
- d) 15 egun.

**41. Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituen martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuaren arabera, hauetatik zein EZ da Uraren Euskal Agentziaren funtzio bat?**

- a) EAEko interes orokorreko obra hidraulikoak.
- b) Lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimena ematea.
- c) Saneamendu-sistemak kudeatzea eta ustiatzea.
- d) Uholde-arriskuguneetan, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatze aldera, beharrezko jotzen diren erabilera-mugak jartzeaz Jaurlaritzari proposamena egitea.

**42. Uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko Errege Dekretuaren arabera, honako egoera hauetatik, zein EZ da nahitaez sartu behar uholde-arriskugarritasunaren mapetan?**

- a) 50 urte edo gehiagoko errepikatze-denbora.
- b) Uholde-probabilitate txikia (500 urteko errepikatze-denbora).
- c) 100 urte edo gehiagoko errepikatze-denbora.
- d) Uholde-probabilitate handia, hala dagokionean.

**43. Zein da Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen lurralde-eremua?**

- a) Autonomia-erkidegoak.
- b) Arroak.
- c) Demarkazio hidrografikoak.
- d) Uholde Arrisku Handiko Eremuak (UAHE).

**44. Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnek izan ditzakete Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen edukiarekin bateragarriak ez diren zehaztapenak?**

- a) Bai.
- b) Bai, baldin eta udalerrriaren herena baino gehiago urak har badezake.
- c) Ez.
- d) Bai, egiturazko plangintzan, eta ez, plangintza xehatuan.

**45. Zer da ibaiertzeko bilbadura biziaren teknika (Krainer)?**

- a) Luzetarako defentsa bat, harrizko blokeekin egina.
- b) Zurezko enborren egitura zelular batez osatutako grabitate-horma bat, landare biziak txertatuta dituena.
- c) Zeharkako obra bat, korrontearen norabidearekiko.
- d) Ibaiertza estaltzea, landare-hedapenerako ahalmena duten hagak landatuz.

**46. Ibaiertzeko berezko landarediak...**

- a) Ur-ibilguetako mikroklima erregulatzen du.
- b) Ertzen egonkortasuna bermatzen du.
- c) Ondoko nekazaritza-praktiketarik datozen mantenugaien iragazki araztaile gisa jarduten du.
- d) Aurreko aukera guztiak egiazkoak dira.

**47. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera, eraikin batek zenbateko atzerapena izan behar du, gutxienez, mugatze-lerroa edo bideratzearen muga definitua ez duten esparru garatuetako ertzetan, baldin eta arro isurlearen azalera 700km<sup>2</sup> bada (isurialde kantauriarrean)?**

- a) 10 metrokoa.
- b) 20 metrokoa.
- c) 25 metrokoa.
- d) 30 metrokoa.

**48. Emari ekologikoak edo ingurumen-eskaerak:**

- a) Erabilera-izaera dute, eta biztanleak hornitu ondoren izango dute lehentasuna.
- b) Ez dute erabilera-izaera, sistemari ezartzen zaion murrizketarena baizik.
- c) Lehentasunezko erabilera-izaera dute beste guztiekiko.
- d) Demarkazio bakoitzeko Lehorte Planetan ezartzen dira.

**49. Honako hauek dira prebentzio-ordezkarien eskumenak:**

- a) Enpresako zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea prebentzio-ekintza hobetzeko.
- b) Prebentzio-planak eta -programak prestatzen, abian jartzen eta ebaluatzen parte hartzea.
- c) Arriskuak eraginkortasunez prebenitzeko metodoei eta prozedurei buruzko ekimenak sustatzea.
- d) Gainerako langileei prebentzio-arloko prestakuntza ematea.

**50. 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, gora jotzeko errekurtsioa jarrita, zein da ebazpena emateko eta jakinarazteko epea?**

- a) Hilabete.
- b) Bi hilabete.
- c) Hiru hilabete.
- d) Sei hilabete.

**51. Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera, zer dira dunak eta 60°-tik gorako inklinazioa duten kostaldeko itsaslabarrak?**

- a) Babes Bateragarri Bereziko Zonak.
- b) Babes Zorrotz Bereziko Zonak.
- c) Ingurumena Hobetzeko Zonak.
- d) Erabilera Bereziko Zonak.

**52. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera, hauetako zein EZ da ertzak zonakatzeko edo tarteetan banatzeko irizpide bat?**

- a) Ertzak ingurumen-osagaiaren arabera zonakatzea.
- b) Lurpeko uren araberako zonakatzea.
- c) Ur-ibilguak tarteetan banatzea, arro hidraulikoen arabera.
- d) Ertzak hirigintza-osagaiaren arabera zonakatzea.

**53. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, nork du lege horren betetze-maila ebaluatzeko eskumena?**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak.
- b) Euskal administrazio publikoek.
- c) Auzitegi arruntek.
- d) Estatuaren Administrazio Orokorrak.

**54. Datuen tratamenduari buruzko oinarritzko informazioak honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:**

- a) Tratamenduaren arduradunaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren identitatea.
- b) Tratamenduaren helburua.
- c) 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15. artikulutik 22. artikulura bitartean ezarritako eskubideak baliatzeko aukera.
- d) Guztiak dira zuzenak.

**55. Azaroaren 24ko 10/1982 Legearen Zioen Azalpenean, aitortzen da euskara norbanakoa \_\_\_\_\_ bete-betean integratzeko tresna bat dela.**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan.
- b) Europar Batasunean.
- c) Nazioarteko komunitatean.
- d) Guztiak dira zuzenak.